

# Noaia!!



Salgai dago  
"Gipuzkoan zehar" liburua



Igandean, Erle Eguna



# Enar

ESTETIKA



**Azaroak 28, MIKROPIGMENTAZIOAREN ERAKUSTALDIA (ATEAK ZABALIK)**

•Azterketa eta bisagismoa **DOAN**  
(mikropigmentazioarekin izango zenituzkeen emaitzen froga)

•**MIKROPIGMENTAZIOA -%20**

munaturre 2, Usurbil **943 571 680**



**MAHUKA**  
etxebeste 3 - ☎ 943 361 106

**ARDI BELTZ  
GARAGARDOTEGIA**

Bazkari eta afarien tiketarekin  
zozketa egingo da. Saria gabonetako  
xexto eder hau izango da!

Zozketa eguna: abenduak 21



**ZORTE ON!!**

## Albistea iruditan !!

# Artisauen egun handia

Azken egunetako eguraldi traketak atsedena hartu zuen, egun batez bederen, eta giroa gozatu azaroko lehen egunean ospatu zen Artisau Azokan. Aitzaga Kultur Elkartek antolatutako ekitaldian, denetariko produktuez osatutako hogei bat postuetatik osteratxo emateko aukera zegoen. Bidean, bitxigileak, harriekin egindako lanak, sestoak, bas-toiak, gozogintza postuak edota talogileak aurkitu zitezkeen. Baita herritarren lanak ere.

Azaroaren lekoa ez da urteko azken azoka izango. Igande honetan, Erle Eguna ospatuko baita frontoi inguruan. Eta datorren hilean, San Tomas azoka, azken hau, NOAUA!ren eskutik.



HERRITAR UGARI BERTARATU ZEN AZAROAREN 1EKO ARTISAU AZOKARA.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) - [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)  
Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Ariz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Ariz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. OR.

IGANDEAN, ERLE EGUNA \_\_\_\_\_ 10. OR.

“GIPUZKOAN ZEHAR” LIBURUA SALGAI \_\_\_\_\_ 15. OR.

OSTIRALEAN, “OBABA” SUTEGIN \_\_\_\_\_ 17. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herria!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**ARRAINDEGIA**  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

**CLIMATA-T**  
klimatizazio orokorra  
687 858 390  
[climata\\_t@yahoo.es](mailto:climata_t@yahoo.es)

**ALKORTA**  
**AUTOZERBITZUA**  
Beheko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42  
Frutak  
Barazkiak  
Etxeko produktuak  
Izoztuak





NEREA ZINKUNEGI

## Galdetu nahi nizuke...

**T**abuak tabu izateari uzten dio naturaltasun osoz hitzak ahotan dantzan hasten direnean.

Usadioa eta kulturaren izenean eskubideak urratzerainoko jarrerak onartzen eta bizitzen jarraitzen dugu. Beti horrela izan delako, ez dago zertan aldatu beharrik, gauzak nahasten ez hasi, hautsak harrotu ez daitezen. Grrrrr...

Izan daiteke auzokoa edo Kale Nagusikoa. Izan daiteke barrura sartu orduko ezkerretara sukaldea duena. Dekoratzailerak diseinatu ditu denak, antza; aulki eta mahai sendoak, erreka harria bistan, urteurrena ospatu zeneko argazkia egurrezko markoan, mantel eta musuzapi koadrodunak, txuri gorri nahiz txuri urdinak, plater eta kikara zuri lodiak, sukalderako tresna eta eltze erraldoiak, alkoholezko miniatuak, sagardo basoa nonahi, kolorezko hitz brodatuak dituzten txapel handiak dirdira galdu duten mus txapelketetako trofeo gainetan... Gure "sozidadeak".

Gure "sozidadetan", zorionez, kolore guztietako pertsonak biltzen dira; zahar zein gazte, gizon zein emakume; eskubaloia aitzaki afaritaran doan koadrila, bildutako perretxikoak dastatzera harro doazenak, apustu txoro

batean galdutako afaria, behingoz, kitatu nahi duena, urtea joan urtea etorri ostiralero afalostean elkartzan diren senar emazteak, umeak, izozkia eskuan, korrika eta zalapartaka, urteak bete dituen alabari opariak emateko mahai bueltan elkartu direnak, sukaldaritza ikastaroa praktikan jartzera doana... Gure "sozidadeak".

Urtean behin, tartean berezirik ez bada behintzat, juntako kideek "sozidadeko" bazkideak deitzen ditu Batzarrera, diru kontu, balantze-balantza eta beste zenbait gai jorratzeko asmoz. Batzarra amaitzean talde txikiagotan komentatzen dira bertan esandako kontuak hamaiketako "earrr" batez lagundurik. Egun horretan "sozidade" gehienetan, kolore bakarra izaten da nagusi; gizon kolorea. Eta honek "sozidadeek" duten xarma eta magia zapuztu egiten du, itsustu.

Emakumeok ere badugu norekin urtebetetzea ospatu, baita perretxikotako zaletasuna ere, sukaldeko abilezia ere erakustea gustuko dugu eta tarteka, zergatik ez, apustu txoro batean afari bat edo beste galdu izan dugu.

Ezer txarrik ba al du emakumeok "sozidadeetako" bazkide izateak?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Batzar Nagusien autobusa Usurbilen

**H**erritarrengana hurbildu nahian, Gipuzkoako Batzar Nagusiek autobus tematikoa jarri dute martxan. Herriz herri dabil egunotan. Aste honetan, Usurbilen izan da.

Autobus honetan, herritarrek, Batzar Nagusiek nola funtzionatzan duten frogatu ahal izan dute. Bideo eta joko bidez erakusten da Batzarren funtzionamendua. Ostiral honetan, autobusa bisitatzeko azken aukera izango dugu Usurbilen.



BATZAR NAGUSIETAKO AUTOBUSA ASTE OSOAN IZAN DA USURBILLEN.



**Usurbil**  
**Autoak, S.C.L.**  
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,  
Aitzearra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

**BORDATXO**  
*edaritegia*

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

**Zuen**  
**publizitatea**  
**hemen**

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

## Aginagako parrokiako zenbait lokal errentan hartzea erabaki zen azken udalbatza plenoan

**U**dalaren eta Aginagako Parrokiak errentamendu kontratu berria sinatuko dute, pasa den urriaren 28ko ohiko osoko bilkuran udal ordezkari guztien babesa jaso ostean. Aurrerantzean, gazteek erabili ohi dituzten lokalen eta Antxomolantxa Herri eta Kultur Elkartek kudeatutako kargu egingo da Udala, hilerio Aginagako Parrokiari 600 euro ordainduta.

Aginagako Parrokiaren eremuan gaur egun hainbat zerbitzu eskaintzen dira; Haur Hezkuntza, ludoteka, Zahar Egoitza... Lokal gehienak erabili ahal izateko Udalak errentamendu kontratuak sinatuak ditu Aginagako Parrokiarekin. Baina badira salbuespenak, azken urteotan bertan zerbitzu berriak eskaintzen ari baitira. Erabilpen horietarako utzitako lokalengatik Parrokiko Batzordeak errentamendu prezioa finkatzea eskatzen zion Udalari; zehazki, gazteek erabili ohi dituzten lau lokalenak eta baita, Antxomolantxa Herri eta Kultur Elkartek kudeatzen dituen ludoteka eta informatika gelarenak ere.

### Alokairua, 600 eurotan

Bi aldeek, Udalak eta Aginagako Parrokiak, 600 eurotan finkatu zuten lokal berri hauen erabilpen prezioa, interes publikoko erabilerak irauten duen artean indarrean egongo dena. Beste modu batera esanda, Udalak hilerio aipatu diru-kopurua ordaindu beharko dio Aginagako Parrokiari. Lokal horien mantentze gastuen kargu ere Udala egingo da. Hala ere, lokal horien



LOKALEN ERABILERARENGATIK 600 EURO ORDAINDUKO DITU UDALAK.  
HORRETAZ APARTE, MANTENU GASTUAK ERE UDALAREN KARGU JOANGO DIRA.

jabe izaten jarraituko du Aginagako Parrokiak.

Eta udal ordezkarien babes osoarekin, pasa den urriaren 28an izandako ohiko osoko bilkuran aho batez onartu baituzten errentamendu kontratu berria. Hala ere, kontratuak udalbatzaren onespena orain jaso arren, bere eraginak urte hasieratik indarrean dira.

### Ohiko prozedura

Errentamendu kontratuena ez da kontu berria Aginagan. Antxomolantxa Kultur Elkartek eta gazteek erabilitako lokalak izan dira azkenak, baina lehenagotik ere halako hitzarmenak sinatu dituzte Udalak eta Aginagako Parrokiak; pintura tailerra zabaltzeko, Arrate Zahar Egoitzaren lokaletarako, baita Haur Hezkuntza bertan kokatzeko ere.

### Bake Epaile titularra eta haren ordezkoa hautatu dituzte

**L**au ziren hautagaiak baina bi soilik hautatuak. Bake Epaile titularra eta haren ordezkoa aukeratu zituzten udal ordezkariak, pasa den asteko ohiko osoko bilkuran; lehen gehiengo osoz, bigarrena aho batez. Erabakitakoa Euskal Herriko Justiziako Epaimahai Gorenari jakinaraziko zaio, izendapena egin dezan.

Osoko bilkurak pasa den abuztuaren 7an, hilabeteko epea zabaltzea erabaki zuen, interesdunek eta lege baldintzak betetzen zituztenek udal erregistroan eskariak aurkez zitzaizten. Tarte horretan, Udalak lau eskaera jaso zituen.



KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

## Eztabaida kalean



Azken hilabete hauetan, ahoz aho dabilen gaia da, herrian eta herritik kanpo, jakinmin handia piztu duena: atez ateko zabor bilketa.

Herrialde "aurreratuok", ez dakigu non eta nola desagertarazi kontsumo mugagabeak sortzen duen zaborra. Toki guztietan uzten dugu gure arrastoa: mendi puntetan, itsasoaren ondoan, ibaietan, hiri handietan, herri txikietan,...

Arazo honi aurre egiteko asmoarekin jarri nahi den atez ateko bilketa, esperientzia berri honek, jende artean, kalean, eztabaida sortu du. Mota guztietako iritzia, galderak eta kezkak daude. Batzuen esanetan, orain arte dauden kontainerretan sailkatzeko aukera izanda, ez baditugu lanak ondo egin, hemendik aurrera bilketa etxean eginda aldatuko al dugu jarrera? Isunak jarriko al dira gaizki egin ezker? Tokia izango al dut etxean ontzi guztientzat? Noiz jaitsi beharko dut zaborra? Ze ordutan? Izango al dut toki alternatibo bat zaborra atera ezin dudanean hara eramateko? Kalean dauden zabor ontzi txikiak ere desagertu egingo al dira? Txakurren kakak nora bota behar dira? Guk



bakarrik eginda zer aurreratzen dugu? Nora joango da birziklatzen ez dena? Hauek eta galdera gehiago argitzeko auzoz auzo bilerak antolatzen ari dira eta joaten ari den jendearen kopurua ikusita jakinmina dagoela dirudi. Baina argi izan behar dugu, guzti hau gaizki edo gogo txarrez hartzen duenak, eta irteera bezala zaborra beste herritara eramatea pentsatzen ari dena oker dagoela eta konbentzitu behar dena zera da: saiakerak merezi duela.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Taxi-bus zerbitzua



Ez dira egun asko pasa udako azken eguzki izpiak ikusi genituenetik baino, dagoeneko urruti sentitzen ditugu udazken euritsu honetan murgildurik. Gustura hartuko genituzke Euskadi Tropikal-eko egun batzuk ea lehortzen garen. Gauden urtaroz gozatzeko ere oso zaila ez da eguraldiari etekina ateratzea jakin ezker.

Perretxiku-zaleak, ehiztariak, hego haize zaleak eta baita gure jubilatua ere geldi egon ezinik dabilta azken asteotan. Azken hauek, esate baterako Iratxetik Gasteiz eta Amurrio inguruan ibili eta gero igande honetan Olite aldera abiatuko zaizkigu. Egun pasa honekin amaitutzat emango dituzte aurtengo irteerak. Gaztetxo hauek ez dira kikiltzen ezta tenperaturarekin ere! Hala ere, ea eguraldiak laguntzen dien igande honetan.

Gaiaz aldatuz, martxan da jada gure auzoa Usurbilgo beste auzoekin eta kaxkoarekin ere elkartzen gaituen taxi-bus zerbitzua. Ez dut erabiltzeko aukerarik izan baino auzokideekin hitz egin eta kexu batzuk badira dagoeneko zerbitzu berri honekin. Tratua eta erosotasuna primerakoa izan arren ordutegian datza kexu nagusia. Tarte handia dago igotzeko ordua eta jaisteko orduarekin eta gehienak igotzeko edo jaisteko bakarrik erabiltzen dute.

ATXEGALDE

MAIALEN UNANUE

## Nirea niretzat...

... eta zurea, baita ere niretzat. Ez ditugu oso gustuko izaten berekoi xamarrek diren lagunak, beno, nik ez behintzat. Lehenengo bera baitago, bigarren ere bera eta ondoren, ezetz asmatu nor?

Dena librea den merkatu erraldoi honetan ere, badugu horrelako lagunik gure artean: ongi dabilenean denok egoten gara lasai antzera, ez ordea, gauzak okertzen direnean. Izan ere, ordura arte gure laguntzarik behar ez zuen lagun handia negarrez hasten baita, eta guztiok berarekin eror ez gaitezen, zerbait egin beharko! Guztioi izorratzen digu berari lagundu behar izatea, gure garai zailenetan hura ez baita ezertaz arduratzen, bere ongizateaz baino.

Hara non eta bankuak direla oraingoan dirurik gabe geratu direnak. Norengana jo? Badaki urteetan egindako lapurretak ez dituela ordu gutxitan konponduko eta bere kabuz ezin duenez, norbaiten beharra izanen duela aurea jarraitzeko. Orduan oroitzen dira herritarrez, aita Estatuaz, eta guztion diruaz. Irabaziak bereztat eta kalteak denontzat.





## KALEZAR

ALOÑA PULIDO

## Santu Guztien eguna



Iada azaroan sartu gara eta nabari da Inegutik gero eta gertuago gaudela. Temperaturak izugarri jaitsi dira eta lehen elurteak ere ikus ahal izan ditugu. Azaroan sartu gara eta urteroko moduan aurten ere azaroaren leian "Santu Guztien eguna" ospatu da munduko txoko askotan.

Suposatzen da "Santu Guztien eguna" hildako guztiei zuzendutako omenaldi moduko bat dela, baina benetan gertatzen dena da, jendeari egun horretan barne kezka pizten zaio urte osoan ez delako kanposantutik pasatu. Orduan sortzen da iskanbila: kanposantuak jendez gainezka, loreak leku guztietatik...

Baina nire ustez hildako bat oroitzeko ez da beharrezkoa kanposantura joatea. Pertsona horri gustatzen zitzaizkion lekuak bisitatzeak edota gustuko zituen jardueretan parte hartzeak ere alternatiba onak izan daitezke egun horretarako. Pertsona horrekin egindako mendi irteerak edo bestelako edozein irteera berriro gogoratzea ere ederra izan daiteke.

Honi guztiari gainera "Halloween" gaua gehitu behar



zaio. Nik uste nuen festa hori amerikarren gauza zela, baina konturatu naiz geroz eta jende gehiagok parte hartzen duela festa horretan. Halloween berez, Amerikako Estatu Batuetan hildakoen oroimenean urriaren 31ean ospatzen den festa erdi kristau erdi paganoa da. Gainera pelikuletan ikusi izan dugun moduan gau horretan haurrak moztortzen dira eta etxez-etxe ate joka joaten dira karamelu eske.

## AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

## Joandakoentzat kantua



Udazkenean sartu gara eta Santu Guztien eta animen eguna ere izan dugu. Aurten azken egunerako utzi dugunok ez dugu eguraldi onegia izan garbiketa lanak egiteko eta dena txukun-txukun prestatzeko. Baina egin dugu eta pozik gainera, horren dotore ikusita, gustura. Badakigu loreak garesti daudela baina gaur egun, zer dago merke?



Ni oso lore zalea naiz eta gainera nire ingurukoei esaten diet gaur edo bihar ez nagoenean, margarita edo pinu adar bat jartzeko. Badakizue, bakoitzak bere iritzia izaten du eta denak errespetagarriak.

Santa Xexili eguna ere laster dugu eta hura ere ospatzeko asmotan gara. Entsegu bat eta ondoren afari eder bat parrokoiko koruko kide guztiokin. Horrelakotan ospatzen ere jakin behar da eta oraingoan guk ere izango dugu ze ospatua.

## ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

## Zubietatik Behobiara

Aurten ere iritsi da negua eta baita Behobia ere. Asko dira Behobian parte hartzen duten korrikalariak. Eta urtero bezala hilabete lehenago hasten dira prestatzen. Korrikalari askoren prestateta ibilbidea Zubietako buelta izaten da.



Gehienak ilunabarrean ateratzen dira entrenatzera. Batzuk ondo ikasia dute ikasgaia: banaka joan behar dela auto bat datorrenean, reflektantea eraman behar dela autoak urrutitik ikus zaitzan... Baina beste batzuk ez dute kasurik egiten eta egun hauetan oraindik ere gutxiago. Asko eta asko joaten dira binaka edo hirunka, nahiz eta autoak atentzioa deitu. Hauei ere erakutsi beharko zaie edo erakutsi beharko die norbaitek "fila indian" joaten, eta hori beti bezala istripu bat gertatzen denean izango da, baina ordurarte ezer ere ez, eta hori penagarria da. Gizon eta emakume helduak eta oraindik hori ikasi gabe. Baina, beste gauza bat ere ikasi behar dute: reflektante ona eramaten. Arropa ederrak eramaten dituzte eta zergatik ez reflektante onak ere eraman arropa ederretan, hauek ederragoak izan daitezke?

# Lehen erronda arrakastatsua eta gero, hasi da bigarren erronda

**P**arte hartzearekin pozik, eta oro har, baikortasun hitzak hondakinen atez ateko bilketa sistema berriari lotuta duela bi aste abiatu zen lehen bilera erronda amaitu ostean. Bigarrenari astelehenean ekin zitzaion eta aurreko saioetan hartutako behin behineko erabakiak aurkeztu ziren. Helburua, atez ateko bilketa sistema berria diseina-tzen joatea baita, erakunde eta herritarren artean.

Ia 600 herritarrek parte hartu zuten sektoreka eta auzoka aurreko asteetan antolatu zen zortzi saioz osatutako lehen bilera errondan. Interesa piztu du beraz, egindako deialdiak. “Txertatu da, hondakinen arazoa guztiona den ideia”, adierazi zuen asteleheneko bilkuran, alkate Xabier Mikel Errekondok.

Bertaratutakoak deialdiari harrera ona eginda, zalantza askorekin, kezkatuta baina eztabaidarako jarrera positiboarekin. Hala deskribatu zuten udal ordezkariak bilkuretara joandako herritarren jokabidea.

Gaur egun, hondakinen birziklagarritasun maila ia %90ekoa izanik, atez ateko sistema dela irtenbidea eta lehen helburua zein den gogorarazi zuten aste hasieran; Usurbilen, hondakinen %80 birziklatzera ailegatzea. Gipuzkoa mailan eta herrialdetik kanpo hemen abiatu den prozesua gertutik jarraitzen ari direla ere aipatu zen.



IA 600 HERRITAR BILDU ZIREN ATEZ ATEKO AURKEZPEN EKITALDIEN LEHEN ERRONDAN.

## PARTE HARTZE HANDIA

“600 herritarrek parte hartu zuten atez ateko proiektua aurkezteko lehen bilera errondan”

Hondakinak kudeatzeko modu berria erakunde eta herritarren artean diseinatuko da, pausoz pauso; bilketa moduak zonaldeka, guneak, zer eta zenbatetan bildu... Orain arte egin diren planteamenduak behin behinekoak dira:

## Landa eremuan, autokonpostajea

Landa eremuan sortutako organikoa bertan baliatzea proposatzen da, aberentzat erabiltzea. Bestela, autokonpostajea bultzatzea aurreikusten da. Horretarako makinak Udalak banatuko lituzke landa eremuan bizi diren herritarren artean. Nahi duenak gainera, konpostatzeari buruz antolatuko den ikastaroan parte hartu ahal izango du.

Gainerako hondakin zatiak ez lirarteke atez ate bilduko. Norberak sortutako hondakinak gaika bildu eta hondakin zati bakoitza herrian zabalduko



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- beheka  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

USURBILGO ATARIA



# Kaxkoan eta herri guneetan atez ateko bilketa egingo da

diren hiru larrialdi guneetako batera eramatea planteatu da, zonalde hauetako herritarrek Kaxkora jaisteko duten ohituragatik. Gune itxiak izango lirateke eta beraz, beharrezkoa litzateke bertan sartzeko txartel bat eskuratzea. Herritar hauek hobariak izango lituzkete tasetan.

## Herri guneetan, atez ate

Atez ateko bilketa burutuko da herri guneen zonaldeetan; **Kaxkoan, baina baita Aginagan, Txokoalden eta Santuenean** ere. Udaletik herritarrei helarazi zitzaizen lehen proposamenean, bilketa gauzez egitea planteatzen zen. Lehen bilera errondan jasotako ekarpenen ostean aldiz, egunez egiteko asmoa dago orain. Merkeagoa delako eta erosotasunagatik, aipatzen zuten. Gainera, herritarrek euren kezka plazaratu zuten; asteburu gauetako "ganberismo" egoerek hondakin guneetarako suposa dezaketen arriskua.

Hondakinak utzi eta biltzeko balizko ordutegia ere zein izan zitekeen aipatu zen. Bi ordu izango genituzke, goizeko 6:30-8:30 artean, dagokigun hondakin zatia etxe atarian uzteko. Jarraian, bost bat ordu iraungo lukete bilketa lanek.

Gerora behin betirako finkatuko den ordutegira moldatu ezin duenak, herriko puntu desberdinetan zabalduko diren hiru guneetan utz dezake egunez egun dagokion hondakin zatia; Atallun, Zubietan eta Aginagan zabal-

duko diren larrialdi guneak deiturikoe-tan hain zuzen. Landa eremuko herritarrek bezala, kasu honetan atez ateko bilketa orduetan moldatu ezin duenak txartel bat eskuratu ahal izango du, larrialdi guneetakoren batean sartu eta dagokion hondakin zatia uzteko.

## Zubietan, Garbitxikia

Parte hartze prozesuari lotuta ekin zitzaion lehen bilera errondara eramandako udal proposamenak **Zubietan Garbitxikia** kokatzea aurreikusten du. Konpost makina eta hondakin zati desberdinak jasotzeko lekua izango lituzke.

## Lantokietan, atez ate eta bilketa lagungarriak

Industriagune eta dendetako hondakinak gaika eta atez ate jaso nahi dira. Etxeetan ez bezala, gune hauetan egon daitezkeen beharrei erantzuteko bilketa lagungarriak ere abian jartzea aurreikusten da. Hori bai, etxe atarietan egingo den bilketarekin alderatuta, maiztasuna desberdina izango da. Sortutako hondakin eta haren bilketa kopuruaren arabera finkatuko da erabiltzaileek ordaindu beharreko tasa. Industria guneen kasuan, elkarren artean nahastu ezingo diren bi bilketa mota desberdindu beharko dira; bate-tik, hondakin industrialena eta beste-tik, ingurune hartan koka daitezkeen jabetxe edo tabernena.



## Zer eta noiz bildu

**L**ehen bilera errondan, behin behineko bilketa maiztasuna eta motak zehaztu ziren. Erronda berri honetan jendaurrean aurkeztu eta eztabaidatuko dira:

**Organikoa:** astean hirutan (astelehen, ostegun eta larunbatetan).

**Ontziak:** astean bitan (astearte eta ostiraletan).

**Papera eta kartoia:** astean behin (asteazkenetan).

**Erreusa:** astean behin (igandetan).

**Pixoihalak eta konpresak:** astean seitan (astelehenetik larunbatera).

## Aurrera begira, lan ildoak

**D**atozen egunotan jorratuko diren gaiak hauek izango dira:

**1-Bilketa sistema eta tasak zehazteko irizpideak adostea;** alternatiba bakoitzaren kostuak baloratuta.

**2-Hondakinen kudeaketak behar duen jarraipena egiteko, jarraipen taldea sortzea.**

**3-Sistema berria martxan jartzeko falta diren elementuak identifikatzea.**

## Informazio gehiago

-Bulegoa: Sutegiko erakusketa aretoan.

-900 776 776 doako zenbakian.

-www.usurbil.net/atezate

## Bilerak Santuenean, Zubietan eta Aginagan

### AZAROAK 6 OSTEGUNA

Gaia: Komertzio eta poligonoetako atez ateko bilketa.

20:00etan, Sutegin.

### AZAROAK 7 OSTIRALA

Gaia: Santueneko atez ateko bilketa (Santuenea, Urdaia, Txokoalde).

18:30ean, Santuenea elkartean

### AZAROAK 8 LARUNBATA

Gaia: Zubietako atez ateko bilketa.

17:00etatik aurrera, Zubietako frontoi atzeko lokala.

### AZAROAK 10 ASTELEHENA

Gaia: Aginagako atez ateko bilketa.

18:30etik aurrera, Aginagako ludotekan.

## Erlea eta eztea, igande honetako protagonistak

### Martin Berasategi izango da ezte lehiaketako epaimahai burua

**U**rteko egunik gozoena ate joka dugu, igande honetan, X. Erle Eguna ospatuko baita. Zintzilikario bezala erabiliko dituzten erleak itxura berria izango dute aurten.

Erlearen Lagunak taldeko kideak urtero bezala, prestaketa lanetan aritu dira, igande honetan ospatuko den Erle Eguna behar bezala ospatu dadin. Eguraldia jai giroaren aldekoa izatea besterik ez da falta orain.

#### Solasaldia Sutegin

Hitzaldi batek girotuko du erleari eta harek ekoizitako produktuei eskainitako egun handia. Apiterapia eta erleen mundua jorratuko dira Sutegin, ostiral honetan, azaroak 7, 17:00etik aurrera.



IAZKO EZTE LEHIAKETAN HAUEK IZAN ZIREN SARITUAK.

## Ukitu gozoa, frontoi eta plazetan

**I**gandean ospatuko da Erle Eguna. Antolatzaileek, ordea, hitzaldi bat prestatu dute ostiral honetarako. Inaki Gonzalo adituak erle munduaz hitz egingo du Sutegin eskainiko duen hitzaldian.

#### Azaroak 7 ostirala

##### HITZALDIA SUTEGIN

Gaia: Apiterapia eta erle mundua.  
Ordua: 17:00. Tokia: Sutegi.

#### Azaroak 9 igandea

##### ERLE EGUNA

9:00-10:00 Ezte eta gozogintza lehiaketako bilketa.

11:00-14:00 Erakusketa, salmenta postuak, musika, bertsolariak, marrazki lehiaketa...

13:30 Sari banaketa:

- Ezte lehiaketako irabazleak.
- Gozogintzako irabazleak.
- Marrazki lehiaketako irabazleak.



-Ezte sarituen enkantea.  
14:30 Aginaga sagardotegian bazkaria.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**



## Julian Urkiola, Erle Eguneko antolaketa batzordeko kidea

# “Gozoa dastatzera etor daitezela”

**E**zti eta gozogintzako lehiaketak, salmenta postuak, informazio panelak... Eta erle berriak. Azaroaren 9ko goiz osoko eta gozoko osagai nagusiak izango dira.

Hamar edizio bizkar gainean, baina berrituta. Hala dator igandean ospatuko den Erle Eguna; irudi berriarekin. Dagoeneko egun horretan ohikoak bihurtu diren erle zintzilikatuek jantzi berriak estreinatuko baitituzte. “Beste era batekoak izango dira. Oraingoekin zerikusirik ez dute izango”, adierazi du antolatze lanetan aritu ohi den Julian Urkiolak.

Itxuraldatutako erle batek garraiatuko ditu, elizako kanpandorretik frontoiraino, ezti eta gozogintza lehiaketatan sari-tutakoen txapelak. Hauek ere irudiz aldatuak. “Txapela beltza izango da, gainean borobil horiak dituela”, aurreratu du Urkiolak.

Ezti eta gozogintzako produktuen lehiaketatan, produktu onenak zeintzuk diren erabaki beharko du aurpegi ezagunez osatutako epaimahaia, lehen-dakari Martin Berasategi buru dela. %18ko hezetasun maila ez gaintitzea, ezti potoa garbi izatea, zaporea, kolorea... guztia behatu beharko dute.

Dagoeneko Euskal Herriko sukaldari ezagunek parte hartu dute, Erle Eguneko aurreko edizioetan; Argiñanok, Arzakek edota Subijanak. Edota geure artean ezagunak diren aktore eta kazetariak.

### Gaztetxoentzat...

Salmenta postuetan osteratxo bat eginenez gero, talogileak izango dira, gozogintzako produktuak, ezti baliatuta egindakoak, kandelak... Tartean, baita ikasturte amaierako bidaiarako laguntza jaso nahi duten Udarregi ikastolako DBH 4.mailakoen postua. “Urtetik urtera gehiagora doa, eta guretzat pozgarria da”, baieztatu du antolatzailerak.



JULIAN URKIOLAK ADIERAZI DIGUNEZ, “URTETIK URTERA ERLE EGUNA GEHIAGORA DOA, ETA HORI GURETZAT POZGARRIA DA”.

Erle Egunaren berri emateko prestatu dituzten esku orrietan, gaztetxo batek egindako marrazki bat ageri da; bi erle antena eta guzti marraztu zituen iaz, estrainekoz antolatu zuten Marrazki Lehiaketan.

### JULIAN URKIOLA

“Porrotx pailazoa txokolatea eta yogurra eztiarekin banatzen arituko da”

Aurten, esperientzia errepikatuko dute Udarregi ikastolakoek. Berriz ere, aldeztu aurretik 3-11 urte arteko ikasleek eginiko artelanak erakusgai jarriko dituzte. Iaz Sutegin, baina aurten, azken orduko aldaketarik ez bada, Askatasuna plazan.

Handik gertu dabilenak, Porrotx pailazoa txokolatea eta yogurra eztiarekin banatzen arituko da, baina aurtengoan, bakarrik ez. “Alex Tello taldekideekin,

Porrotxekin elkarlanean, hurrekin jai giroa ospatuko dute”, zehaztu du Urkiolak.

Eguna bazkari eder batekin amaituko dute, Aginaga sagardotegian. Txartelak egunean bertan salgai izango dira plazaan, 22 euroren truke.

Antolatzailerak frontoi ingurura agertzeko gonbita luzatzen dute: “Denak korrika egitera aterako ez direnez, gozoa dastatzera etorri daitezela”, adierazi du antolatzailerak.

### Non daude erleak?

Erle ugari ikusiko da igandean, azken urteotan desagertzen ari diren artean. Teknikariek ikertzen jarraitzen dute. Oraindik ondorio garbirik ateratzeko goiz bada ere, faktore bat baino gehiagoren eraginez gerta liteke; aldaketa klimatikoagatik edota baita akaroengatik ere. “Azpiespezie berri bat sortu da, askoz erasotzaileagoa”, adierazi du Urkiolak.

Egoera bere onera itzuli artean, hila-ren 9ko ospakizunak, erleak duen garrantziaz jabetzeko balioko digu.

## Igande honetan jokatuko da Behobia-Donostia lasterketa

# Idoia Ezeiza, iazko denbora hobetzera

**I**azko 1:29:56 marka hobetzea da Idoia Ezeizak aurtengo Behobia-Donostia proban bete nahiko lukeen helburua. Seigarrenez irtengo da, bere esanetan, iaz baino sasoikoago, igande honetan jokatuko den proba.

**NOAUA! Zure aurtengo erronka...**

**Idoia Ezeiza.** Ez dut helburu garbirik. Iaz, 1:29 egin nuen eta aurren, pixka bat hobetzen ahalegindu nahi nuke. Marka hori hobetzea espero dut. Hala ere, egunean bertan ikusi egin behar, zer emaitza lortzen den.

**N. Sasoi aldetik, iaz baino hobeto zaudela diozu?**

**I. E.** Hobeto sentitzen naiz, eta lasterketatan egindako markak hobeto atera zaizkit. Behobia-Donostiakoa ere hobetzea espero dut.

### LASTERKETA UGARITAN

“Apiriletik hasita, zazpi-zortzi bat lasterketatan hartu dut parte aurren”

**N. Prestatzeko tartea erraz aurkitzen al duzu?**

**I. E.** Astean lautan aritzen naiz korrika. Astearte goizetan jai izaten dut, eta egun horretan egiten dut saio luzeena. Eta bestela, haurrak 14:30ean ikastolan utzi eta ordubetez, bueltatxo bat ematera joaten naiz. Astia atera liteke, tartea ondo egokitzea da garrantzitsua. Korrika egiteko ordubete izatea ondo etortzen da.

**N. Nondik ibiltzen zara?**

**I. E.** Kiroldegitik atera eta Txokoalde edo Zubietara aldera joaten naiz. Asteartetan koadrilatxo batekin biltzen naiz eta ondo. Talde batekin edo bestearekin, beti ibiltzen gara.

**N. Zerorrek sumatuko duzun bezala, jende asko dabil korrika?**

**I. E.** Topera. Kristoren trafikoa dago. Jendea hala animatzen den bitartean, ondo dago.

**N. Zeure ingurukoek zer diote?**

**I. E.** Egun hartan ikustera joaten dira, parte hartutako beste lasterketa txikitik bezala. Gustura daude. Haiek ere animatzen dituzu kirola egitera. Orain gutxi Lasarte-Orian proba bat izan da, haurrena tartean. Denok kirola egitera.

**N. Behobia-Donostia denboraldi amaieran izan ohi da. Urte bukaeran parte hartzeko beste hitzordurik baduzu?**

**I. E.** Bikoteka egin ohi den Zarautzeko proba, oso polita baita. Abenduaren 1ean izan ohi da. Ez dago hainbeste neska bilduko dituen lasterketarik. 500 neska biltzen gara. Eta bestea, Urte Zahar eguneko. Iaz, Azpeitiakoan parte hartu nuen, jai nuelako. Baina aurren, ziur aski, Zarautzekoan parte hartuko dut.

**N. Behobiakoa baino lehen, beste probetan parte hartzen duzu?**

**I. E.** Lasarten, Zestoan, Zumaian... Zazpi-zortzi bat lasterketatan parte hartu dut aurren, apiriletik hasita. Urte bukaerakoan osten, atsedena hartu, eta martxo-apirila aldera berriz hasiko gara. Mantentzeko gehienbat. Kirola egitea gustuko dut, korrika da ordubete batean egin dezakedana. Eta urtean zehar astean hirutan egindako saioak mantentzen ditut. Utziz gero, oso zaila da gero berriz hasia.

**N. Parte hartu duzun proben artean, Usurbilgo Baxurde Txikikoek antolatutakoa dago. Helmugara iritsitako hirugarren emakumea, eta bertako lehena izan zinen.**

**I. E.** Oso polita izan zen. Bertako jendea eta ezagutzen duzuna animatzen,



IAZ, ORDUBETE ETA 29 MINUTUTAN OSATU ZITUEN BEHOBIAKO 20 KM-AK.

eguraldia ere kristorena egokitu zen. Gainera bidea ezagutzen genuen. Pozik ziren bai antolatzaileak eta baita parte hartu genuenok ere. Oso gustura. Hasieran uste zuten gutxi izango zirela baina amaieran, haiek uste baino lasterkari gehiago bertaratu ziren.

### “Ibilbidea polita da”

**NOAUA! Proba hau zergatik da hain erakargarria zuretzat?**

**Idoia Ezeiza.** Oso ibilbide polita da. Ez zara inoiz pasatzen leku bereetik. Kristoren animazioa dago. Lehen kilometrotik hogeigarrenera jendea animatzen ikustea, gozagarria da. Oso polita da.

**N. Behobia-Donostia bezalako probetan ondo moldatzeko giltzarri garrantzitsuenak zeintzuk dira?**

**I. E.** Ibiltzea eta denboraz hasia. Kilometroak egiten badituzu, nahiko ondo jasaten duzu. Gorputzari kilometroak eginarazi behar dizkiozu, kilometroak jasatea. Proban, kilometro asko egin behar baitira.

Iñigo Alkorta, lehen aldiz arituko da Behobia-Donostian

## “Igandean neure erritmoan ibiliko naiz”

**I**doia Ezeizak ezagutzen du Behobia-Donostia lasterketa. Baina Iñigo Alkortarentzat, aurten goa izango da osatuko duen lehena. Lagunek izena emanda hasi zen urte hasieran Iñigo Alkorta gaztea prestaketa lanetan. Herri desberdinetan antolatu diren zenbait kirol probatan parte hartu du. Gogotsu eta umore onez ekingo dio igande honetan, bere erronka berriari; Behobia-Donostia bidea osatzea lehen aldiz.

**NOAUA!** Lehen aldiz Behobia-Donostia igandean. Bezperako egun hauek nola bizi dituzu?

**Iñigo Alkorta.** Eguna ailegatzeko gogorik gabe...

**N. Urduritasunagatik?**

**I. A.** Hala da. Izena eman izan ez banu, hobe. Lagun batek apuntatu zidan. Aterako garela erraz esaten da urtarrila edo otsaila aldera. Hiruzpalau lagun batera irtengo gara.

**N. Urte hasieratik entrenatzen ari-tuko zineten?**

**I. A.** Astean bi edo hiru aldiz korrika Zubietako buelta egiten hasi ginen. Gerora, pixkanaka ibilbidea luzatzen joan ginen, Lasarte edo Bugati aldera jota. Astean ordubeteko hiru bat saio. Behobiarako gehiago entrenatu behar dela, egunero korrika ibili behar dela suposatzen da. Baina igandean, neure erritmoan ibiliko naiz.

**N. Lasterkari mugimendu handia sumatuko duzue azken aldian, presta-keta lanetan?**

**I. A.** Jende asko dabil. Eguraldi txarra izanda ere, jendea korri egitera ateratzen da.

**N. Behobia-Donostiakoaren aurretik, beste probatan parte hartu duzu?**

**I. A.** Lasarte-Oria, Ordizia eta

Martutenen antolatutakoetan. Hamar bat kilometrokoak hirurak. Hamabostekoak ere badira, baina ezin izan nuen parte hartu.

**N. Nola ikusi duzu zure burua?**

**I. A.** Orain, azken aldian ondo. Lasarte-Oriakoan ondo moldatu nintzen. Gustura. Hala ere, hamar kilometro egin eta beste hamar egiteko gogo behar da...

**N. Baina igandeko ibilbidea osatzeko moduan bazarete?**

**I. A.** Egingo dugu. Aterako gara, ailegatu ordea... Badakit inolako markarik ez dudala hautsiko baina...

### URTE HASIERATIK KORRIKA

“Urtarrilaren 21ean utzi nion erretzeari. Tabakoa utzi eta egun berean, korrika hasi nintzen”

**N. Aztertu al dituzu zirkuitoak dituen zailtasunak?**

**I. A.** Badakit ibilbidea nondik nora izango den, baina ez naiz bertatik pasa. Aspaldi ez naiz igaro handik. Uste baino luzeagoa izango da.

**N. Proba aurreko ordu erdi hori nola pasako duzu?**

**I. A.** Urduritasun handiarekin. Lehen bi probatan ez, baina Lasarte-Oriakoan lasaiago nengoen. Behobia bezalako probetan ordea, zailagoa da tenplea mantentzea.

**N. Aurrera begira, proba gehiagotan parte hartzeko asmorik ba al duzu?**

**I. A.** Korrika egiteari behintzat, ez diot utziko. Segiko dut. Probaren bat egokitzen bada, parte hartuko dut.



